



IKER  
GAZTE  
NAZIOARTEKO  
IKERKETA EUSKARAZ

## II. IKERGAZTE NAZIOARTEKO IKERKETA EUSKARAZ

2017ko maiatzaren 10, 11 eta 12  
Iruñea, Euskal Herria

ANTOLATZAILEA:  
Udako Euskal Unibertsitatea (UEU)

### GIZARTE ZIENTZIAK ETA ZUZENBIDEA

**Hego Euskal Herriko prozesu  
konstituziogile baterako ideiak.  
Begirada bat Latinoamerikari  
(eta baita Kataluniari ere)**

*Eneko Compains*

156-165 or.

<https://dx.doi.org/10.26876/ikergazte.ii.02.19>

ANTOLATZAILEA:



ELKARLANEAN:



LAGUNTZAILEAK:



UDALBILTZA



Universidad  
de Navarra

## Hego Euskal Herriko prozesu konstituziogile baterako ideiak. Begirada bat Latinoamerikari (eta baita Kataluniari ere).

Compains, E.

Euskal Herriko Unibertsitatea / Latinoamerika eta Kariberi buruzko Ikerketa Taldea /

Oinarrizko eskubideak eta Europar Batasuna Ikerketa Talde Kontsolidatua<sup>1</sup>

[eneko.compains@ehu.eus](mailto:eneko.compains@ehu.eus)

### Laburpena

Lan honen zioa zuzenbide konparatuan Hego Euskal Herriko prozesu konstituziogile baterako ideiak bilatu eta azaltzea izango da. Horretarako Latinoamerikara begiratuko da, Venezuela, Bolivia eta Ekuadorrera zehazki, hauexek baitira *Latinoamerikar Konstituzionalismo Berria* bezala ezagutu den konstituzionalismo berriaren adierazle nagusi. Aipatu hiru herrialdeetan, pairatzen zuten egiturazko krisia gainditu nahian (politiko, ekonomiko eta soziala) herriek prozesu konstituziogileak abiatu eta konstituzio berriak onartu zituzten, bidean irakaspen mordoa utziz. Lan honetan irakaspen horiek Euskal Herriari egin diezaieketen ekarpena azaltzeko ahalegina egingo da. Zeharka bada ere, Kataluniari ere begiratuko zaio.

**Hitz gakoak:** prozesu konstituziogile / Euskal Herria / Latinoamerika / Katalunia

### Abstract

*The aim of this paper is to look for ideas within the comparative law, and explain them for a constituent process in Southern Basque Country. For that purpose, we will look at Latin America, specifically to Venezuela, Bolivia and Ecuador, which are the main examples of the so-called New Latin-American Constitutionalism. In these three countries, people started constituent processes and approved new constitutions in order to get over the structural crisis they suffered (social, economical and political), producing a valuable contribution for the constituent power theory. We will look at Catalonia too.*

**Key words:** *constituent process / Basque Country / Latin America / Catalonia*

### 1. Sarrera eta motibazioa

Aspalditik esaten ari da Espainian erregimen krisi bat ematen ari dela; alegia, 1978ko Konstituziotik jaiotako sistemak erabateko krisia pairatzen duela eremu ekonomiko, sozial, politiko-instituzional zein territorialean, eta ondorioz, sisteman aldaketak egin behar direla, izan handiagoak ala txikiagoak.

Egoera honen adibide lirateke, besteak beste, Estatuako instituzio nagusi batzuek azken urteetan izan duten zilegitasun galera handia (Monarkia edo Senatua kasu); gobernutik hartutako neurri ekonomikoen aurrean egondako erantzun zabala (bankuen erreskatearen eta murrizketa sozialen aurkakoa); alderdi politiko batzuen ustelkeria kasuen orokortzearen aurrean zabalduko sumindura (Estatuan PP-PSOE; Nafarroan UPN; eta EAEn, neurri txikiagoan bada ere, PNV); susperraldia bizi izan duten indar politiko berrien ondorioz sortutako panorama politikoaren zatikatzea; Estatuaren ahalegin birzentralizatzailearen aurrean, herrien aldarrikapen subiranisten biderkatzea (indar bereziz Katalunian); eta abar luze bat.

---

<sup>1</sup> Lan hau Eusko Jaurlaritzako GIC 07/86 ikerketa taldearen babesean eginga da (Derechos Fundamentales y Unión Europea; Ref : IT675-13).

Fenomeno guzti hauen aurrean, non gehienek aitortu egiten baituten aldaketak egin egin behar direla, aukera nagusiak bi lirateke: 1978ko erregimenaren berrezarpena (erreforma txikiekin bada ere) ala haustura demokratikoa eta prozesu konstituziogileen abiatzea. Rosa Luxemburg lider komunistaren hitzetan ximpleago esateko: erreforma ala iraultza<sup>2</sup> (kasu honetan, iraultza sozialista baino iraultza demokratikoa). Horixe litzateke gaur egungo dikotomia nagusia.

Panorama politikoari begiratzen badiogu, Estatu mailan behintzat, badirudi berrezarpena dela gailentzen den joera. Koroa berriturik geratu da Felipe VI.aren buruan, instituzioari itxura berritua emanez; murrizketa sozialen aurkako borrokak nabarmen egin du behera; Alderdi Popularrak garbiki irabazi ditu hauteskundeak; eta hori gutxi ez balitz, *Unidos Podemos*-ek, alegia, erreforma sakonagoen alde agertu den estatuko indar bakarrak, miloi bat bozka utzi zuen bidetik iragan ekaineko hauteskunde orokorretan. Ez dirudi beraz panorama hortik aldatuko denik, horretarako proposamen zehatzik faltatu ez den arren<sup>3</sup>.

Horren aitzinean berriz, Katalunian, bizi bizi mantendu da *procés* delakoa, indar erakustaldi erraldoiekin, eta bai herritarrek nola beren ordezkari politikoek erreferenduma antolatu, independentzia aldarrikatu eta prozesu konstituziogile eraldatzaile bat martxan jartzeko determinazio osoa dutela dirudi, baita desobedientzia beharrezko bilakatzen bada ere. Horrexegatik, aldaketa termino demokratiko eta aurrerakoietan nahi dutenentzako aukera egingarriagoa dirudi azken hau.

Eta Euskal Herrian zer? Gaur egun bareturik ageri den mobilizazio ziklo historiko baten ondorioz erregimenaren indarrak (UPN-PSN) Nafar Gobernutik kanporatuak izan dira, eta Hego Euskal Herriko bi Parlamentuetan inoizko handienak dira erabakitze eskubidearen aldeko gehiengoak. Herri mugimenduak (*Gure Esku Dago* kasu) bizirik mantentzen du erabakitze eskubidearen aldeko dinamika herritarra. Horrek, baina, momentu konstituziogile baten aurrean kokatzen du gure herria? Posible da Hego Euskal Herrian, une honetan, prozesu konstituziogilerik zabaltzea? Hori aztertzea izango da, hain zuzen ere, hurrengo lerroen zioa, horretarako esperientzia konparatuei erreparatuko zaiolarik.

---

<sup>2</sup> Luxemburgo, R. (2015), *Reforma o Revolución*, Akal, Madril.

<sup>3</sup> Viciano Pastor, R. et al. (2013), *Por una Asamblea Constituyente. Una solución democrática a la crisis*, Sequitur, Madril.

## 2. Arloko egoera

Botere konstituziogilearen gaia, Martínez Dalmauk azaltzen duenez, ohiko zirkulu akademikoetatik kanpo egon zen urte luzeetan zehar, horren erakusgarri zelarik, besteak beste, zuzenbide fakultateetako ikasgeletan gaiari eskaintzen zitzaion tarte eskasa<sup>4</sup>. Pisarellok ere, bigarren gerraosteko konstituzionalismo sozialarekin prozesu konstituziogileen ortzemuga eta ezaugarritzea itxita balego bezala jokatu zela defendatzen du, behintzat doktrinaren parte zabal baten partetik<sup>5</sup>. Ez zegoen zertaz hitz egin edo eztabaidatu, ez baitzen inolako nobedaderik ematen, eta hortaz gaiari arreta eskasa eskaintzen zitzaion.

Aitzitik, XXI. mendeko lehen hamarkadan Latioamerikan egondako *irakite konstituziogileak* gaiari eskeintzen zitzaion arreta berpiztu egin zuela esan liteke. Horrela adibidez, askotarikoak izan dira azken hamarkadan Venezuela, Bolivia eta Ekuadorreko prozesu konstituziogileen inguruan idatzitako lanak, eta lan labur honek oinarri duen tesi-lana bera ere hor koka liteke<sup>6</sup>.

Zergatik beraz, Latinoamerikara begiratu? Bada, azken hamarkadei erreparatuz, inolako zalantzarik gabe, han agertu direlako botere konstituziogilearen gaiari dagokionez elementu eta ezaugarririk berritzaileenak, *Latinoamerikar Konstituzionalismo Berria* bezala ezagutzen den horretan batu direnak. Edozein kasu, argi geratu behar da hasieratik hara begiratzen badugu irakaspenak ateratzeko dela, ez han egindakoak Hego Euskal Herrian mimetikoki aplikatu behar direla esateko. Izan ere, elementu komunak egon badaitezke ere, zeharo ezberdinak dira bateko eta besteko egoera zein baldintza politikoak, eta ondorioz, guztiz okerra litzateke hangoak hemen kopiatu behar direnik baieztatzea. Fidel Castro komandanteak argi zioen moduan, “kopiatzen dugun aldioro erratu egiten gara”<sup>7</sup>. Ez da hori gure helburua.

## 3. Ikerketaren muina

Esan bezala, ikerketa labur honen muina Latinoamerikako prozesu konstituziogileetatik irakaspenak atera eta horiek Hego Euskal Herrian izan dezaketen eragina aztertzea da. Guztiarekin, ondorengo lerroetan, Nafarroa eta EAEko balizko prozesu konstituziogileetarako lau oinarritzko galdera laburki erantzuten ahaleginduko gara:

---

<sup>4</sup> Martínez Dalmau, R. (ed.) (2014), *Teoría y práctica del poder constituyente*, Tirant Lo Blanch, Valentzia, 9. or.

<sup>5</sup> Pisarello, G. (2014), *Procesos constituyentes. Caminos para la ruptura democrática*, Trotta, Madril, 107. or.

<sup>6</sup> Compains, E., *Botere konstituziogilea latinoamerikar konstituzionalismo berrian. Venezuela, Bolivia eta Ekuadorreko azken prozesu konstituziogileen analisi konparatu bat*, IVAP, Basauri, 2016.

<sup>7</sup> Boron, A. (2008), *Socialismo siglo XXI ¿Hay vida después del neoliberalismo?*, Luxemburg, Buenos Aires.

### 3.1. Hego Euskal Herriko lurraldeak momentu konstituziogile baten aurrean aurkitzen dira?

Aditu guztien artean ahobatezkoa da momentu konstituziogileak (prozesu konstituziogileen aurreko une historikoak) krisi momentuak direnaren baieztapena. Beste modu batera esanda: herriek soilik sistemaren krisirik sakonenen aurrean abiatzen dituzte gisa horretako prozesuak, arinagoak direnak gobernu aldaketekin edota konstituzio erreforma soilekin gainditzen diren bitartean<sup>8</sup>.

Baieztapen hau argi frogatuta geratzen da Venezuelan, Bolivian eta Ekuadorren martxan jarritako azken prozesu konstituziogileen aurrekariari erreparatzen badiegu. Horrela, hiru herrialdeok antzeko egoera pairatzen zuten: krisi ekonomikoa; neurri ekonomiko neoliberal basatien inplementazioa; pribatizazioak; oinarrizko eskubideen murrizketak; gehiengo sozialen bazterketa (osagai arrazistekin); pobrezia zabalpena; ustelkeriaren biderkatzea; klase politikoaren eta alderdi politiko tradizionalen zilegitasunaren gainbehera; instituzio nagusien *partidizazioa* eta, oro har, instituzio nagusien jabetzea alderdien partetik (*alderdikrazia* deitu zena); herritarren parte-hartzearen bazterketa nabaria; konstituzioen eraginkortasunik eza... asko dira aipa genitzakeen elementuak<sup>9</sup>.

Elementu horiek, duda gabe, gobernu-krisi huts baten adierazle baino, *erregimen krisi*<sup>10</sup> sakon baten adierazle ziren, zeinean sistema instituzional osoak zilegitasun galera erraldoia zuen eta *statu-quo* guztia auzitan jartzen baitzen gehiengo sozial baten partetik. Horren ondorioz, momentu konstituziogile baten aurrekarietan kokatu ziren hiru herrialdeak, eta hauteskunde bidez agintari berriak boterera heldu orduko, konstituzio berriak onartzeko prozesuak martxan jarri ziren.

Espainiar estatura etorrira, Kataluniako egoerari erreparatzen badiogu eta egoera soziala horren dramatiko ez bada ere, momentu konstituziogile baten aurrean aurkitzen direnaren zantzuak agerizkoak dira: *Estatut*-aren gaineko epaia<sup>11</sup>, Madrildik bultzatutako murrizketa ekonomikoak, defizit fiskala, hizkuntza eta hezkuntza katalanari egindako erasoak, *Parlament*-ak onartutako eta Auzitegi Konstituzionalak suspenditutako 44 legeak (momentuz)... Horiek guztiek asko zabaldu dute Espainiak Kataluniaren erabakitze eskubidea inoiz errespetatuko ez duenaren, eta ondorioz, alternatiba bakarra abiapuntu berri bat jartzea denaren ideia; alegia, haustura demokratikoa gauzatu, errepublika aldarrikatu eta prozesu konstituziogile baten bidez errepublika berri horren zutoinak definitu<sup>12</sup>.

Hego Euskal Herrian berriz, tamainako zilegitasun galera dute Espainiar instituzioek? Horren krisi handia bizi du sistemak? Egiturazko elementuak egon badaude: batetik, trantsizio garaian lortutako autogobernurako arauak ez direlako bete (hala Gernikako estatutuak nola Foru Hobekuntzak

---

<sup>8</sup> Nogueira Alcalá, H. (2008), Consideraciones sobre el poder constituyente y reforma de la Constitución en la Teoría y Práctica constitucional, *Ius et Praxis*, 15, 1, Talca (Txile), 233. or.

<sup>9</sup> Lan ezberdinak aipa litezke hemen: Bonilla-Molina, L. eta El Troudi, H. (2005), *Historia de la Revolución Bolivariana. Pequeña crónica*, UBV, Caracas; Iglesias Turrion, P. eta Espasandín López, J. (koord.) (2007), *Bolivia en movimiento. Acción política y poder político*, El Viejo Topo, Madril; Pérez Loose, H. (2009), Ecuador y su metamorfosis constituyente, in: Serna de la Garza, J.M. (koord.), *Procesos constituyentes contemporáneos en América Latina. Tendencias y perspectivas*, UNAM, Mexiko.

<sup>10</sup> Erregimen krisi baten osoagaiak eta arazoak aztertzeko, ikus: García Linera, A. (2006), Crisis del Estado y poder popular, *New Left Review*, 37, 66. or.

<sup>11</sup> Epaia polemikoaren inguruan, ikus: Bayona i Rocamora, A., (2010), La sentencia del Tribunal Constitucional sobre l'Estatut d'Autonomia de Catalunya, *Activitat Parlamentaria*, 23, 63-71. or.

<sup>12</sup> Arazo katalanaren inguruan, ikus: Cotarelo, R. (2016), *La República Catalana*, Now Books, Bartzelona.

transferentziak betetzeke dituzte oraindik), eta jendarteko sektore zabalentzat (euskal gehiengo sindikalak kasu) tresna agortuak direlako; baina bestetik, eta batez ere, Madrilek ildo berzentralizatzaile nabarmena martxan jarri duelako, gehienetan euskal gehiengo politiko eta instituzionalen borondatearen aurka. Horren froga dira Madrildik inposatutako murrizketa sozialak edota gastu sabaiaren finkapena; autogobernua zokoratzen duten oinarritzko legeen ezarpena (LOMCE, *Mozal Legea...*); alderdi minoritario batekoak izanik (PP), eskubide zibil eta politikoen zampaketan Gobernu delegatuak betetzen ari diren papera; edota Auzitegi Konstituzionalaren aurrean Nafarroa zein EAERI aurkatutako 27 legeak (17+10). Gure ustez, euskal autogobernuaren aurkako eraso iraunkorra denik ezin da ukatu; hori bai, beste kontu bat da sozialki hori guztia horrela ulertzen den (eta ezezkoan gaude, Nafarroan behintzat).

Gaur gaurkoz, tarterik dago estatu propiorik gabe autogobernua garatu ahal izateko? Hori da euskal jendarteak erantzun beharreko galdera. Erantzuna baiezkoa/zalantzazkoa izaten jarraitzen duen artean zaila izango da Hego Euskal Herria momentu konstituziogile baten aurrean dagoenik defendatzea.

### 3.2. Masa kritikorik dago Hego Euskal Herrian prozesu konstituziogilerik zabaltzeko?

Prozesu konstituziogile bat abiatzeko masa kritikoa behar da; prozesua ireki eta aurrera eramateko determinazioa duen herri bat, iraganarekin apurtu nahi duena. Gero datoz munduko oztupo legal/konstituzional guztiak, prozesuaren aurkakoek indarrean dagoen legeria baliatuz ipini nahiko dituztenak; baina aurre-baldintza hori da: herri bat *statu quo*-a errotik eraldatzeko borondatea duena.

Aipatzen ari garen hiru herrialdeetan agerizkoa da baietz, masa kritiko hori egon bazegoela. Venezuela, Bolivia eta Ekuadorreko kasuetan, gehiengo sozial horiek gehiengo politiko bilakatu ziren 1999ko, 2005eko eta 2006ko hauteskunde presidentzialetan, zeinetan Chávez, Morales eta Correa asanblada konstituziogilearen bandera astinduz aurkeztu baitziren. Horixe zen beren programen puntu zentrala, eta herriak berretsi egin zuen. Hauteskunde garaipenen aurretik, gainera, gauzen egoerarekiko nekearen eta aldaketa nahiaren adierazle, mobilizazio ziklo indartsua eman zen. Venezuelaren kasuan “*Karakazo*” bezala ezagutzen den 1989ko eztanda sozialean izan zuen inflexio unea (milaka hildako Karakaseko kaleetan), une hartan agerian geratu zelarik sistemaren erabateko krisia eta jendearen nekea. Boliviaren kasuan 2000-2005eko “ziklo errebolataria” eman zen, zeinaren bidez aldaketaren agenda konfiguratzeko joan baitzen: natur baliabideen nazionalizazioa, presidentearen auzipetzea eta asanblada konstituziogilerako deia. Horiek ziren “urriko agenda”-ren puntu nagusiak. Eta Ekuadorren ere erraldoiak izan ziren sistemaren aurkako mobilizazioak, 1996 eta 2006 urteen bitartean, besteak beste, hiru gobernu presidente uzkaile zituztenak: Bucaram (1997), Mahuad (2000) eta Gutiérrez (2005)<sup>13</sup>.

Estatu beste behin etorrita, Kataluniari erreparatzen badiogu, egoera parekagarria dela esan liteke (ezberdintasunak ezberdintasun). Masa kritikoa badago, herri mobilizatu bat, kontzientea, Kataluniako *Estatut*-aren epaiak geroztik modu iraunkorrean mobilizatu dena: izan *Diada*-n mobilizazio erraldoiak eginez, herri galdeketak antolatuz edo baita epai ezberdinei muzin eginez prozesu parte-hartzaile bat abian jarritz (azaroaren 9ko kontsulta). Gehiengo instituzionalak ere badituzte, eta oraingo erronka da erreferendum bidez munduari erakustea Kataluniak Errepublikak bat fundatu nahi duela, baketsuki, modu demokratikoan.

---

<sup>13</sup> Martínez Dalmau, R. (2006), De Punto Fijo a Oruro. Los bolivarianos entre la acción y la reacción, in: Torres López, J. *Venezuela a contracorriente. Los orígenes y las claves de la revolución bolivariana*, Icaria, Bartzelona, 16-17. or.; Miranda, B. ((2012), 2000-2005 El tiempo de las sublevaciones, in: Peñaranda, R. et al., *30 años de democracia en Bolivia. Repaso multidisciplinario a un proceso apasionante (1982-2012)*, Página Siete, Bolivia, 103. or. eta hur.; Ávila Santamaría, R. (2011) *El neoconstitucionalismo transformador. El Estado de Derecho y la Constitución de 2008*, Abya-Yala, Quito, 92-93. or.

Eta Hego Euskal Herrian? Masa kritiko hori egon liteke (horretarako lan egiten bada), baina gaur gaurkoz ez dagoelakoan gaude. Zergatik? Bada, iruditzen zaigulako oraindik orain jendartearen gehiengo batek sistema autonomikoaren imajinariora lotzen duela autogobernuaren garapena (Nafarroan nabarmen; EAEn zalantzakorra izan liteke). Horrek baina, ez du esan nahi aukeraz beteriko eskenatoki baten aurrean ez gaudenik. Hortxe daude erabakitze eskubideak babes zabala duela edota jendarte autogobernu gehiago nahi duela erakusten duten inkestak<sup>14</sup>. Herriaren parte bat gainera nabarmen mobilizatzen ari da erabakitzen eskubidearen alde (Gure Esku Dago ekimenak sustatutako galdeketa horren lekuko). Baina egiari zor, esan behar da gaur egungo autogobernu nahi hori ez dela oraindik, Katalunian bezala, subiranismo orokortu bilakatu, eta ondorioz, prozesu konstituziogile bat zabaltzeko masa kritiko nahikorik dagoenik baieztatzea zaila suertatzen da.

Zer egin orduan? Gure ustetan, momentu konstituziogile batera heltzeko beharrezkoa den masa kritikoa gorpuzteko prozesu *status*-gileak abiatu beharko liriteke lehenbizi (Gernikako Estatutuak eta Foru Hobekuntzak ezartzen dituzten erreforma prozedurei jarraiki izan liteke), eta bertan planteatu *status* berriek (hartzen duten forma hartzen dutela) Nafarroaren eta EAEn erabakitze eskubidea jasotzearen beharra. Madrilek baiezkua emango balie, erabakitze eskubidearen onarpenaren aurrean geundeko (gaur gaurkoz ez dirudi oso posiblea denik). Aitzitik, ezezkua emango balie hemen onartutako *status* proposamenei, aurrekusi daiteke herrian bide hori saiatzaren inguruko antzutasunaren konbentzimendua zabaldu egingo zela, baita sumindura ere, ondorioz perspektiba konstituziogilean koka gintezkeelarik Katalunian gertatu bezala.

### 3.3. Zer gertatzen da indarrean dagoen legedia prozesuak oztopatzeko erabiltzen bada?

Galdera honi erantzuteko lehen aipu bat egin behar da: ez dago zailtasunik gabeko prozesu konstituziogilerik. Esperientzia konparatuak argi erakusten du prozesuaren aurkako sektoreek indarrean dagoen legeria baliatu nahiko dutela prozesua oztopatzeko.

Latinoamerikari begiratzuz nabarmen ikusten da hori. Venezuela eta Ekuadorreko kasuetan, indarrean zeuden konstituzioek ez zuten asanblada konstituziogilearen figura jasotzen, ez eta prozesu konstituziogile bat zabaltzeko aukerarik biltzen ere (Boliviako kasua ezberdina da, hangoa erreforma prozesu bat izan baitzen, eta ez, formalki behintzat, prozesu konstituziogile bat). Prozesuaren aurkako sektoreak horretaz baliatu ziren prozesuon zabalpenerako antolatu ziren erreferendumak geldiarazi nahian, baina tribunalak (une ezberdinetan epai kontraesankorrak eman bazituzten ere) azkenean argi mintzatu ziren. Konstituzioek botere eratu (exekutibo, legegile eta judizialaren) jarduna arautzen zuten, baina inolaz ere botere konstituziogilearen lana. Konstituzioa erreformatzeko ekintzak eta Konstituzio berri bat indarrean jartzekoak zeharo ezberdinak zirela ezarri zuten, azken hauek ez zeudelarik konstituzioak mugaturik. Azken batean, botere konstituziogilea ordenamendutik librea eta mugagabea zela ezarri zuten, eta herriaren subiranotasuna oinarri, soilik berak onartutako automugapenak izan zitzakeela<sup>15</sup>.

Ondorioz, ideia bat argi geratu behar da: botere konstituziogilearena, azken batean, ez da legalitate kontu bat, zilegitasun demokratikoaren kontua baizik<sup>16</sup>.

<sup>14</sup> Barómetro de Opinión Pública del Parlamento de Navarra, 2016/12/05. Ikus: [http://static.noticiasdenavarra.com/docs/2016/12/05/1-parte-barometro-opinion-publica-parlamento-navarra-2016-parte-1\\_10399.pdf](http://static.noticiasdenavarra.com/docs/2016/12/05/1-parte-barometro-opinion-publica-parlamento-navarra-2016-parte-1_10399.pdf)

<sup>15</sup> Compains E. (2016), *Botere konstituziogilea Latinoamerikar...*, op. cit., 150. or. eta hur.

<sup>16</sup> Doktrina oso argia da honen inguruan: De Vega, P. (1985), *La reforma constitucional y la problemática del poder constituyente*, Tecnos, Madril, 24. or.; Guastini, R. (2001), *Estudios de Teoría Constitucional*, UNAM, Mexiko, 40-41 or.

Azken hau Katalunian ongi ulertu dutelakoan gaude. Legalitatea herriaren borondatera moldatu behar da eta ez aldrebes. Indarrean dagoen legeria ezin da oztopo izan herriaren nahimen demokratikoarentzat, eta hala bada, moldatu beharko da. Horretarako borondaterik ezean, Madrilen gertatzen den bezala, aldebakartasunerako bidea libre geratzen da<sup>17</sup>.

Latinoamerikako kasuekin alderatuz, halere, ezberdintasun nabarmena legoke hemen. Venezuela, Bolivia eta Ekuadorreko herriek subiranotasuna formalki onartua zuten; ez ordea Kataluniak ezta Euskal Herriak. Herri subiranotasuna baldin bada botere konstituziogilearen oinarri, zer egin orduan? Subiranotasun hori aldarrikatu egin behar da, irabazi (historiako lehen prozesu konstituziogile demokratikoak [AEB, 1775-1787] hori bera erakusten du). Hain zuzen ere hori dela eta onartu zuen Kataluniako Parlamentuak subiranotasun adierazpena<sup>18</sup>. Auzitegi Konstituzionalak, beste behin ere, indargabetu egin zuen, ohartu gabe bere irismena politikoa zela, eta ez juridikoa. Esan bezala, zilegitasunaren terrenoan mugitzen baikara.

Beraz, Euskal Herriaren ere prozesu konstituziogilerik abiatu nahiko bagenu, komenigarria litzateke aurrez gure burua subjektu subirano gisa aldarrikatzea, den moduan dela (betiere demokratikoki).

### 3.4. Nola zabaldu eta garatu prozesu konstituziogileak EAEn eta Nafarroan?

Esan den bezala, gure kasuan, edozein prozesu konstituziogileren aurretik prozesu *status*-gileak etorriko lirarteke, momentu konstituziogilerak hurbilduko gintuztenak. Latinoamerikari erreparatzen badiogu, lan hori bi zutoinen gainean egin beharko litzateke: printzipio demokratikoa eta herriaren parte-hartze zuzenaren sustapena. Horixe da prozesuok erakusten dutena, herriaren parte-hartzea presente egin baitzen prozesuon hasieran, garapenean eta itxieran, izan erreferendum bidez (kontsultiboak eta lotesleak), hauteskudeen bidez edota parte-hartze foroen bidez (gaikakoak eta lurraldekakoak). Eta gainera, milaka eta milaka ekarpen jaso ziren herritarren partetik (Bolivia eta Ekuadorreko kasuetan bereziki)<sup>19</sup>.

Venezuelako kasua adibide hartuta, bertan prozesua erreferendum kontsultibo (beraz, ez lotesle) baten bidez zabaldu zen, herritarrei zuzenean galdetuz: “*Estatua transformatu eta demokrazia sozial eta parte-hartzaile bat funtzionatzea ahalbidetuko duen ordenamendu juridiko berria sortzea helburu izango duen Asanblada Nazional Konstituziogilea deitzen duzu?*”. Eztabaida juridiko sakona egon zen bertan, orduko Konstituzioak ez baitzuen aurreikusten asanblada konstituziogilerako aukerarik, baina azkenean, indarrean zegoen araudiaren interpretazio eskuzabala eginez botere konstituziogileari bide eman zitzaion (herriaren subiranotasunaren aitortpen konstituzionala eta galdeketa kontsultiboak antolatzekeko Presidentearen ahalmena baliatuz<sup>20</sup>).

Gure kasuan, prozesu *status*-gileak abiatu ahal izateko, antzekorik planteatu liteke? Bai Amejoramenduak (71.2 art.) eta baita Gernikako Estatutuak ere (46. art.) erreforma mekanismo zehatzak aurreikusten dituzte, ekimenaren abiatzea Gobernu edo Parlamentu autonomikoen esku uzten dutenak (besteak beste). Erreferenduma deitzea Estatuko Gobernuaren eskuduntza eskusibo den arren (EK 149.1.32. art.), zergatik ez planteatu bai Gasteizen eta bai Iruñean herri-kontsulten lege bana onartzea eta herritarren *iritzia ezagutzeko* galdeketa *kontsultibo* zilegitzaila bana planteatzea prozesuon zabalpenerako? Galdera horrelakoa izan liteke: “*Gure status politikoa eraldatu eta demokrazia sozial*

---

<sup>17</sup> Sezesio baterako baldintzen inguruan (Kanada, Quebec), ikus: Compains, E. (2017), Autodeterminazioa, in: Gutiérrez, A. *Nazioarteko Harremanetako 14 giltza-hitz*, EHU, Leioa, 185-199. or.

<sup>18</sup> Adierazpena 2013ko urtarrilaren 23an onartu zen. Ikus: <http://www.parlament.cat/document/intrade/7217>

<sup>19</sup> Compains E. (2016), *Botere konstituziogilea Latinoamerikar...*, op. cit.. 277. or. eta hur.

<sup>20</sup> Venezuelako 1961eko Konstituzioaren 4. artikulua eta Sufragio Legearen 181. artikulua oinarri hartuta.



*eta justiziazko bat funtzionatzea ahalbidetuko duen status subirano berri baten onarpenerako prozesua abiatzarekin ados zaude?*”. Estatuak instituzio publikoei halakorik egitea ekidingo balie, beti geratuko litzateke herri ekimenez galdeketa hori antolatzeke aukera. Are gehiago, aintzat harturik EAEn Autogobernu Batzordea martxan dela eta Nafarroan, gobernu akordioan, Amejoramentuaren erreforma biltzen dela, Gure Esku Dago ekimena aurten antolatzen ari den galdeketa sortan bertan egin liteke, independentziaren gaineko galderari goian planteatutakoa gehituz. Esan den bezala, zilegitasunaren terrenoan mugitzen gara, eta bistakoa da horrelako urrats batek zilegitasunez kargatuko zuela *status* berri baterako prozesuaren aldekoen posizioa.

Lehen urrats horren ondotik, egungo estatutuek aurreikusten dituzten prozedurak jarrai litezke hitzez hitz, prozesuak juridikoki blindatzeko. Eta egia izanik ere prozedurok ez dutela parte-hartze mekanismorik aurreikusten, debekurik ere ezartzen ez dutela gehitu behar da. Parte-hartzerako aukeren zabalpena borondate politikoaren arabera litzateke orduan, eta gure ustez, ez dago aurreikusterik eskari handi eta aktibo baten aurrean parte-hartzeari ateak itxiko zitzaizkionik. Oraingoan Bolivia eta Ekuadorreko kasuei erreparaturaz, zergatik ez *status* berrien gaineko eztabaidak eskualde edota merinaldeka? Zergatik ez eztabaida horiek berak sektoreka? Prozesuaren hastapenetan horrelako mekanismoak martxan jarriko balira, gure ordezkarien eskutan ekarpen andana jartzen ahalko litzateke, prozesua orobat aberastuz.

#### 4. Ondorioak

Jakinik hemen aipatu diren baieztapenek garapen eta zehaztapen lan handia behar dutela, idazki labur honen ondorioak honakoak dira:

1. Euskal Herria ez da oraindik momentu konstituziogile baten aurrean aurkitzen. Herritarren gehiengo batek, gaur gaurkoz, autonomiari loturik ulertzen du euskal autogobernuaren garapena, eta ondorioz ez dago prozesu konstituziogilerik abiatuko duen masa kritikoa nahikorik.
2. Hori esanik, *status* subiranoen aldeko prozesu *status*-gileak abiatzeko aukerak badaudelakoan gaude: autogobernu nahia, erabakitzeke eskubidearen aldeotasuna, gehiengo politiko, sindikal eta instituzionalak, eta abar luze bat aipa litezke elementu baikor moduan. Prozesu *status*-gile horiei ateak itxiko balitzaizkie Espainiatik, eta ondorioz euskal gehiengo batek imajinario autonomikotik kanpo kokatuko balu bere burua, momentu konstituziogilera hurbilduko ginateteke zalantzarik gabe.
3. Prozesuok bi oinarri nagusiren gainean eraiki beharko lirateke (*status*-gile ala konstituziogile izan): printzipio demokratikoa eta herritarren parte-hartzea. Oztopo eta traba legalak seguruak izango dira (munduko beste txokoetan bezala), baina arrakastarako gakoa ez da legalitatean kokatzen, zilegitasunean (herriaren babesean) baizik, eta parte-hartzea sustatzeak beti handitzen du zilegitasun demokratikoa.

#### 5. Etorkizuna

Gaur gaurkoz ez dago perspektiba konstituziogilerik Euskal Herrian, eztabaida hori euskal jendartean ez baita ematen ari (besteak beste, inor gutxi mintzatzen delako gaiaz terreno publikoan). Hain zuzen ere isiltasun hori hausten hastea izan da lerroon zioa. Eztabaida soziala piztu egin behar da, ondotik aldaketa instituzionalak etortzeko. Eztabaida sozialik ezean perspektiba konstituziogilerik ez dago.

Bukatzeko, euskal autogobernua osoki (libre eta subiranoki) garatu ahal izateko horrelako ortzi-mugak planteatzea utopikoa edo ezinezkoa dela uste dutenei Weberren hitzak oroitaraztea besterik ez dago:

“Historiak behin eta berriz erakusten du gauzak posible egiten direla aurrez ezinezko bezala behin eta berriz saiatu direlako<sup>21</sup>”.

## 6. Erreferentziak

Ávila Santamaría, R. (2011) *El neoconstitucionalismo transformador. El Estado de Derecho y la Constitución de 2008*, Abya-Yala, Quito.

Bayona i Rocamora, A., (2010), La sentencia del Tribunal Constitucional sobre l'Estatut d'Autonomia de Catalunya, *Activitat Parlamentaria*, 23.

Bonilla-Molina, L. eta El Troudi, H. (2005), *Historia de la Revolución Bolivariana. Pequeña crónica*, UBV, Caracas.

Boron, A. (2008), *Socialismo siglo XXI ¿Hay vida después del neoliberalismo?*, Luxemburg, Buenos Aires.

Compains, E. (2016), *Botere konstituziogilea latinoamerikar konstituzionalismo berrian. Venezuela, Bolivia eta Ekuadorreko azken prozesu konstituziogileen analisi konparatu bat*, IVAP, Basauri.

(2017), Autodeterminazioa, in: Gutiérrez, A. *Nazioarteko Harremanetako 14 giltza-hitz*, EHU, Leioa

Cotarelo, R. (2016), *La República Catalana*, Now Books, Bartzelona.

De Vega, P. (1985), *La reforma constitucional y la problemática del poder constituyente*, Tecnos, Madril.

García Linera, A. (2006), Crisis del Estado y poder popular, *New Left Review*, 37.

Guastini, R. (2001), *Estudios de Teoría Constitucional*, UNAM, Mexiko.

Iglesias Turrion, P. eta Espasandín López, J. (koord.) (2007), *Bolivia en movimiento. Acción política y poder político*, El Viejo Topo, Madril.

Luxemburgo, R. (2015), *Reforma o Revolución*, Akal, Madril.

Martínez Dalmau, R. (ed.) (2014), *Teoría y práctica del poder constituyente*, Tirant Lo Blanch, Valentzia.

Martínez Dalmau, R. (2006), De Punto Fijo a Oruro. Los bolivarianos entre la acción y la reacción, in: Torres López, J. *Venezuela a contracorriente. Los orígenes y las claves de la revolución bolivariana*, Icaria, Bartzelona.

Miranda, B. ((2012), 2000-2005 El tiempo de las sublevaciones, in: Peñaranda, R. et al., *30 años de democracia en Bolivia. Repaso multidisciplinario a un proceso apasionante (1982-2012)*, Página Siete, Bolivia.

Nogueira Alcalá, H. (2008), Consideraciones sobre el poder constituyente y reforma de la Constitución en la Teoría y Práctica constitucional, *Ius et Praxis*, 15, 1, Talca (Txile).

---

<sup>21</sup> Borón, A. (2008), *Socialismo siglo XXI, op. cit.*

Pérez Loose, H. (2009), Ecuador y su metamorfosis constituyente, *in*: Serna de la Garza, J.M. (koord.), *Procesos constituyentes contemporáneos en América Latina. Tendencias y perspectivas*, UNAM, Mexiko.

Pisarello, G. (2014), *Procesos constituyentes. Caminos para la ruptura democrática*, Trotta, Madril.

Viciano Pastor, R. *et al.*, (2012), *Por una Asamblea Constituyente. Una solución democrática a la crisis*, Sequitur, Madril.